



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

ANTIA LEHIAKETA, URNIETAKO UDALAK ANTOLATZEN DUEN LITERATUR LEHIAKETA CONCURSO ANTIA, CERTAMEN LITERARIO ORGANIZADO POR EL AYUNTAMIENTO DE URNIETA

Euskara, literatura, sormena eta idatzizko adierazpena bul-tzatzeko xedez, Urnietako Udalak urte hasieran, Antia literatur lehiaketa antolatzen du. Bi kategoria ezberdin izaten dira, haurrena 2014, 2015 eta 2016an jaiotako neska-mutilentzat; eta gazteena 2010etik 2013ra jaiotako nerabeentzat.

Egape Ikastola betidanik izan da partaide lehiaketa honetan, are gehiago, gure curriculumean integratua daukagu bertan parte hartzeko eta gure lanak aurkezteko lanketa egiteko jarduera, honela, Euskara eta Literatura jakintzagaian landutako ezagutzak errealitatera transferitzeko abagunea izaten dute gure ikasleek hainbat kompetentzia garatuz.

Urtero-urtero saridunak izan ohi ditugu, aurtengoa, berriz, urte oparoa izan dugu saridun guztiak Egape Ikastolakoak izan baitira, bai haurren kategorian eta baita gazteen kategorian ere.

Haurren kategorian saritutakoak LH 6.mailako Elke Garmendia Celaya, Jugatx Paz Gomez eta Elaia Zaldua Lizeaga izan dira, Gazteen kategorian saritutakoak, berriz, DBHko Paula Iñigo Fernandez, Izaro Arrieta Etxeberria eta Naiara Naharro San Miguel.

Zorionak guztioi!!!!

Con el objetivo de impulsar el euskera, la literatura, la creatividad y la expresión escrita, el Ayuntamiento de Urnieta organiza el concurso literario Antia. Ha habido dos categorías diferentes, la infantil para niñas y niños nacidos en 2014, 2015 y 2016; y la juvenil para adolescentes nacidos entre 2010 y 2013.

Egape Ikastola ha participado en este concurso desde siempre, es más, tenemos integrada en nuestro currículum la actividad dirigida a participar en el certamen y, de esta manera, nuestro alumnado tiene la oportunidad de transferir a la realidad los conocimientos trabajados en la asignatura de Lengua y Literatura Vasca, desarrollando diferentes competencias.

Todos los años tenemos alumnado premiado, y este año estamos muy orgullosos y orgullosas ya que todas las premiadas pertenecen a Egape Ikastola, tanto en la categoría infantil como juvenil.

Las premiadas en la categoría infantil son Elke Garmendia Celaya, Jugatx Paz Gomez y Elaia Zaldua Lizeaga de 6º curso de Primaria y en la categoría juvenil las alumnas de Secundaria Paula Iñigo Fernandez, Izaro Arrieta Etxeberria y Naiara Naharro San Miguel.

Zorionak guztioi!!!!





LOGELAN LOGALE

Logelan logale ARTIS+ Artea, gizarteratzeko Europako proiektuaren parte den ekimena da. Honen bidez, gure herrialdeko ikas-tetxeetan kantu korala bultzatu nahi da.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako kantata bat da eta Euskadiko Orkestrak 2025eko maiatzean estreinatu zuen Donostian eta Gasteizen. Kontzertu parte-hartzaile honetan ikasleek Euskadiko Orkestrarekin batera abesbatza handiak osatuz abesten dute, eta horretarako bereziki sortutako obra interpretatzen dute.

Hori horrela, Egape Ikastola HLHIk hasieratik parte hartu du ekimenean. Proiektu honetan LH 6. mailako ikasleek ikasurtean zehar proposatutako programazioa jarraitu dute musikako irakaslearen gidaritzapean.

Aurretik aipatu bezala, *Logelan logale* kantata bat da, non protagonista bere ohean sartzen den eta saiatzen den arren ezin duen lokartu. Egunari errepasoa egiten dio eta nekatuegi sentitzen da bere gorputza eta burua loari emateko.

Doinu eta kantu ezberdinen bidez fantasiatzeko gau batean gertatzen dena kontatzen eta kantatzen da, ohera joaten den unetik eta esnatu arteko istorioa. Loia eta ametsaren fantasiari, bakoitzak bere doinua jartzeko, lo gaudenean ere abenturak bizi ditugulako.

Apirilaren 22an estreinatu zen gure ikasleek eta beste ikastetxeetako haurrez osatutako koro handia Kursaal agertokian Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera. Kontzertu bikaina eskaini zuten, Egape Ikastolako HLHIko ikasleei, Urnietako herritar zein familiei eskaini gabe uzterik ez zegoenez, kontzertua eskaini zitzaizen maiatzaren 22an Plazido Muxika plazan.

Gozatu ederra hartu genuen gerturatu ginen guztiok!

LOGELAN LOGALE

Logelan logale es una iniciativa que forma parte del proyecto europeo de socialización ARTIS+ Arte. Con ella se pretende impulsar el canto coral en los colegios de nuestro país.

Se trata de una cantata dirigida al alumnado de 5º y 6º de Primaria y estrenada por la Orquesta de Euskadi en mayo de 2025 en San Sebastián y Vitoria. En este concierto participativo el alumnado canta formando grandes coros junto a la Orquesta de Euskadi, e interpretan una obra creada especialmente para la ocasión.

Egape Ikastola HLHI ha participado en la iniciativa desde sus inicios. En este proyecto el alumnado de 6º de Primaria ha seguido la programación propuesta a lo largo del curso bajo la dirección del profesor de música.

Como se ha comentado anteriormente, *Logelan logale* es una cantata en la que el protagonista se mete en su cama y aunque lo intenta no puede dormirse. Repasa el día y se siente demasiado cansado para entregar su cuerpo y su mente al sueño.

A través de diferentes melodías y canciones pretendemos contar y cantar lo que sucede durante una noche "fantasiosa" y narrar musicalmente las aventuras que vivimos cuando creemos que dormimos, porque incluso cuando dormimos vivimos aventuras.

El 22 de abril se estrenó esta cantata formada por nuestras alumnas y alumnos y el alumnado de otros centros escolares en el escenario Kursaal junto a la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Ofrecieron un gran concierto, y por ello, el 22 de mayo en la plaza Plazido Muxika nuestro alumnado ofreció esta cantata, tanto al resto del alumnado de Egape Ikastola como a las familias y vecinas y vecinos de Urnieta.

¡Disfrutamos todas y todos los que nos acercamos!

ARGAZKIGINTZA ANALOGIKOAREKIN ESPERIMENTATZEN. LATAK KAMERA BIHURTU ETA ARGAZKI ARTISTIKOAK ERREBELATUZ

Egape Ikastolak Foru Aldundiaren laguntzaz baliatuta, Kultura Eskola ekimenean parte hartzen dihardu azken urteetan. Laguntza honi esker hainbat jarduera interesgarri burutzeko parada izaten dugu gure ikasleen sena artistikoa garatze aldera eta DBH 4. mailako ikasleak Adierazpen Artistiko jakintzagaiko saioetan ekimen polit batean murgildu dira eta honakoa horren adibide.

Nagore Legarreta argazkilari eta irakaslearen eskutik, teknika primitibo bezain sinplea ezagutzen dute ikasleek. Bi asteetan zehar, 4 orduko tailerrean, argazki kamerak eraikitzen aritzen dira berrerabilitako ontziak erabilia; ondoren, gure ingurua jasotzen dute argazkitan. Jarduera zeharo esperimentalta izaten da; haren bitartez sormena, eraikuntza, birziklatazea, autonomia, irudimena eta hitzik gabeko komunikazioa lantzen dira.

Nagoreekin modu espontaneoan eta dinamikoan egiten dute lan. Argazkilaritza estenopeikoa eta argazkilaritzaren oinarriak modu praktikoan ulertzeko aukera izaten dute ikasleek. Tailerrean lan egiteko moduak ere teknika analogiko honen inguruan sor daitezkeen ezustekoekin jolasteko aukera ematen du.




EXPERIMENTANDO CON LA FOTOGRAFÍA ANALÓGICA. TRANSFORMANDO LAS LATAS EN CÁMARAS Y REVELANDO FOTOS ARTÍSTICAS

Egape Ikastola con la colaboración de la Diputación Foral viene participando en los últimos años en la iniciativa Kultura Eskola. Gracias a esta ayuda tenemos la oportunidad de realizar diversas actividades de interés para desarrollar el sentido artístico de nuestras alumnas y alumnos. El alumnado de 4º de la ESO se ha embarcado en una bonita iniciativa en las sesiones de la asignatura de Expresión Artística, éste es un ejemplo de ello.

De la mano de la fotógrafa y profesora Nagore Legarreta, el alumnado conoce una técnica tan primitiva como sencilla. Durante dos semanas, en un taller de 4 horas, construyen cámaras fotográficas con recipientes reutilizados y después salen a fotografiar nuestro entorno. Se trata de una actividad eminentemente experimental a través de la cual se desarrolla la creatividad, la construcción, el reciclaje, la autonomía, la imaginación y la comunicación no verbal.

Gracias a Nagore, el alumnado trabaja de forma espontánea y dinámica. Y tiene la oportunidad de comprender de forma práctica la fotografía estenopeica y sus fundamentos. La forma de trabajar en el taller también permite jugar con las sorpresas que pueden surgir en torno a esta técnica analógica.





Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azorte kalea z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus

